



# LEZEAREN FORMAKUNTZA

Orain dela 130 milioi urte (Kretaziko Aldia) itsasoak estaltzen zuen inguru hau eta bere hondoan karearri arrezifalak sortu ziren. Karearri hauek Leze honetan ageri dituzue, ondoan ditugun Sara eta Urdazubiko lezeetan bezalaxe, hirurek E.-M. orientazioa duen sinklinal baten aldea osatzen baitute. Itsasoak atzera egin zuenean errekek lezeak industen hasi ziren.



# Infernuko erreka

Zugarramurdiko hego aldean  
Atxuria eta Aizpara mendiak ditugu,  
Trias Aldiko tuparri eta areharriak  
osagarri nagusiak dituztelarik.  
Arroka hauen bultzadek lezearen  
harri karetsua tolestu eta hautsi  
zuten. Haustura eta falla ugariak  
alde batzu sakonean eta beste  
batzu, berriz, agerian utzi zituzten,  
horien artean Zugarramurdiko  
lezearen multzo harritsua.

Azkeneko glaziazioetan gertu  
dugun Kantauri itsasoak  
gorabehera haundiak izan zituen.  
Horren ondorioz, Infernuko erreka  
bere uharroilaren maila ezberdinak  
etengabe indusiz joan da, ikuspegi  
honetatik antzematen den moduan.

## “Erraldoien marmitak”

Gaur egun, errekek ihardun  
segitzen du. Karearria urarekin  
disolbatzen da eta korrontearen  
indar mekanikoak gastatzen du,  
“erraldoien marmita” ikusgarriak

sortuaz: borobil antzako zuloak,  
errekaren hondo harritsuak  
sortuak, erreka bizian biraka  
doazen harkoskoen pulitze eta  
xehatze lanen ondorioz.

